

293. zk.

Bigarren aroa

Urtarrilak 15  
2017

Irungo  
euskarazko  
hamabostekaria

# Irunero

## Elkarrizketa

Iñaki Bengoetxea,  
Ola sagardotegia.  
3. orrialdea



## Kirolak

Teresa Errandonea, Super  
Amara BAT.

8. orrialdea



- 4-5 **Elkarrizketa** Beñat Larrukert, bideo egilea.
- 6 **Erreportajea** Caser
- 6 **Erreportajea** Maider Martiarena, Bakeolako kidea.
- 9 **Kirolak** Gurutz Aginagalde.
- 11 **Haurren Lanak** San Vicente de Paul HH.
- 12 **Gazteen lanak** San Vicente de Paul LH3.
- 13 **Gaztea** Oier Gil, artista.
- 14 **Gazte infor**
- 15 **Agenda**





**TXOTX BERRIA  
IREKIERA FESTA**

**URTARRILAK 22**

**ZATOZ I**



## Argazki lehiaketa

## Irun atzo Irun gaur

IUA: 30212



**Rosa Mitxelena**

.Junkal eliza eta Oiasso Museoa.

**Izaga** kalea



Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: [jarozena@irunero.com](mailto:jarozena@irunero.com)



## Irunero

### Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena,  
Unai Oiartzun eta Peli Le-  
kuona

**Euskara zuzentzailea:**  
Unai Oiartzun

**Publizitatea:**  
Sonia Garcia Olazabal,  
Amaia Terrazas

[amaiaterrazasruiz@gmail.com](mailto:amaiaterrazasruiz@gmail.com)

Ion Otxoa

[ion@943sansebastian.com](mailto:ion@943sansebastian.com)

**Argitaratzailea:**  
837 comunicación y  
publicidad S.L.  
**ISSN:** 1134-0606

**Lege gordailua:**  
SS-230-94.

Tel: 693 828 099

Nafarroa hiribidearen ezker aldeko paraleloa da, Junkal karrikatik Aixin Zuloa ibilbideraino doan kalea. 1979ko irailaren 6ko Osoko Bilkuran Izaga kalea izena jarri zioten J.L. Ociok eta A. Aranburuk, Batzorde Iraunkorraren proposamenez.

Seguruenik, Izaga eta Junkal hitzen esanahia berbera dela eta, izen hori proposatu zuten.

Lehenago, kale honek, zehazki 1960ko uztailaren 6tik aurrera, Calle de la División Azul izena eduki zuen. Bigarren Mundu Gerran, 40. hamarkadaren hasieran, nazien armada-

rekin Sobietar Batasunaren aurka borrokatu zuen boluntario espainiarren taldea izan zen "División Azul".

Hasiera batean (1941ko ekainean), Muñoz Grandes jenerala izan zuen buruzagi. 1942ko urritik aurrera, Esteban-Infantes jeneralak ordezkatu zuen.

Iturria: José Monje.  
*Irungo kaleen izenak.*



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura  
Sailak (Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du



**IÑAKI BENGOETXEA, sagardogilea**

**“Bada garaia bereizteko zer den bertakoa, eta zer kanpotik ekarritakoa”**

Urtarrilaren 22an hasiko da sagardo denboraldia Irunen. Irekitze festa ospatuko dute Meaka auzoko Ola sagardotegian, senideekin, lagunekin eta gertukoekin egingo duten bazkarian. Azken prestaketa lanetan dabil Iñaki Bengoetxea nagusia, nahi bezala irten dadin dena. Umore oneko dago, aurtengo sagardo uztarekin pozik, baina are gehiago, urtarriaren hasieran aurkeztu berri duten “Euskal Sagardoa” jatorri izenarekin. Urtetako lanaren fruitua izan dela azaldu du Irungo sagardogileak.

**Zer moduz joan da aurten sagardoaren produkzio lana?**

Arraro samar joan zen 2016 urtea. Udaberriaren lore asko galdu zen. Hondarribia aldean asko bildu nuen, etxeko sail batzuetan ere bai, baina beste batzuek pott egin zuten. Naturak hori du; toki batzuetan ondo joaten da, besteetan, berriz, ez. Baina tira, udazkena ona izan zen, eta hortik etorri zen errematea. Azkenean uste baino gehiago bildu genuen.

**Zein izan da emaitza? Zein tankera hartzen diozu aurtengo sagardoari?**

Azkeneko, eguzkiak goxatu egin zuen, eta graduak hartu ditu aurten sagarrak.

“Udazkenak borobildu du sagardoa”

Edateko, zapore dezente izango du sagardoak, eta aroma aldetik ere, ondo etorriko da. Esan bezala, udazkenak borobildu du sagardoa.

**Zenbat litro sagardo egin dituzue?**

Urtero kantitate berdinetan ibiltzen gara. 120.000 litro inguru egiten ditugu. Ezin dugu produkzioa handitzearekin erotu, gero saldu ere egin behar delako, eta merkaturako lehia handia delako. Bai sagardoaren artean, baita garagardoekin edo bestelako

edariekin ere.

**“Euskal Sagardoa” jatorri izena martxan da. Ola sagardotegiak ere parte hartzen du bertan. Zein helbururekin?**

Illusio handiarekin, egia esan. Hamazazpi

urte daramatzat bertako sagarrarekin egindako sagardoaren alde lanean, beste jende batekin batera. 2011n Eusko Label marka lortu genuen, eta pozgarria izan zen. Baina jatorri izenaren borroka hor egon izan da beti.

Sagardoa bezain euskalduna den produktu bat kanpotik etorritako sagarrarekin egitea, lotsagarria iruditzen zait. Kontsumitzailea ere nahiko lanbrotua ibili da azken aldian. Bada garaia bereizteko zer den bertakoa, eta zer den kanpotik ekarritakoa. Bakoitzak erabakiko du gero zer nahiago duen. Nik, behintzat, argi daukat bertako sagarraren aldeko apustua. Beti egin izan da horrela, azken hogeita hamar urteetan izan ezik.

**Zein onura ekar dezake jatorri izenak?**

Bertako baserriak eta lurrak suspertuko ditu, eta ekonomia indartuko du. 350 hektarea sagasti baino gehiago behar ditugu. Horrek ehun familiarantzako lana sortuko du, gutxi gorabehera. Kate bat sortzeko modua da: gertuko baserri bati sagarrak erosten baldin badizkiozu, badakizu ondoren sagardoa kontsumitzera etorriko zaiuzula. Txekiar Errepublikan erosten baldin baduzu, hango ekoizleak ez dizu sagardoa kontsumituko.

Ez badiogu gureari eusten, kanpoko marka handiek jan egingo gaituzte. Don Simon ere, adibidez, sagardoa egiten hasi da. Ho-

rrelako enpresa batek Euskal Herria itotzeko adina sagardo egin dezake, oso prezio merkean. Beste metodo batzuekin, eta beste era batera. Bide horretatik, gu pikutara goaz.

**Santiagotarrak K.E. omenduko duzue aurten, denboraldiaren irekitze festan. Zergatik iruditu zaizu merezi zuela?**

Santiagotarrak elkarte aspalditik ezagutzen nuen. Sokatira munduan elkarrekin aritu ginen 70eko hamarkadan. Aurrerantzean, ezaguna da piragua eta arraun munduan egin duen lana eta izan dituen lorpenak. Espainiako txapelkunak eta mundu mailan ondo ibili diren kirolariak dituzte.

Baina aitortu behar dut, aurtengo Bidasoa Ibaia Nazioarteko Jaitsiera ikusi dudanean, harrিতuta gelditu naizela, hainbeste neska-mutiko eta gizon-ema-kume ibaian ikusterakoan. Haztegi lanak, haurrak eta gazteak kirolaren diziplinan sartzeak, balio handia du.

**Maiatzera arte luzatuko duzue sagardo denboraldia.**

Egunero egongo da sagardotegia zabalik. Asteazken zehar afarietarako, eta asteburuetan, bazkarietarako ere bai. Ematen du maiatza urrutiko dagoela, baina konturatzerako, sanmartzialetan gaude.



## Egitarau oparoa izan dute Gabonetan



Jardueraz beteta egon da Caser egoitzetako agenda, aurtengo Eguberrietan. Abenduaren 19an hasi dira ospakizunak, eta urtarrilaren 6ra, Erregeen Egunera arte luzatu dira. Santo Tomas Eguna, Inuzenteen Eguna, Gabon Gaua, Eguberri Eguna, Urtezaharra eta Urteberri Eguna ospatu dituzte, otordu bereziekin. Olentzeroren eta Erregeen bisitak jaso dituzte, opari eta guzti.

Eguberrietako Loteriaren emankizuna ikusi dute zuzenean, aben-

duaren 22an. Kontzertuak izan dituzte: Irungo kontserbatorioko ikasleena Anakan, Kasino Zaharra abesbatzarena Betharramen, eta Angel Pazosek eta Jose Luis Azkuek osatutako bikotearena bi egoitzetan. Anakan, San Vicente de Paul ikastetxeko ikasleen Eguberrietako postalen lehiaketa egin dute, belaunaldien arteko programaren baitan.

## Real Unionen bisita jaso dute Caserren



Gabonetako jardueren egitarau bereziaren baitan, ez ohiko bisita hartu dute Caser Anaka egoitzan. Real Union klubeko lehen taldeko jokalariek izan dira bertan, zuzendaritzako zenbait ordezkarekin batera. "Ea poz txiki bat ematen diegun", espero du José Luis Reinoso kontseilariak. Errege Egunaren bezperan izan da bisita, urtarrilaren 5ean, eta opariak eraman dizkiete egoiliarrei: Real Unioneko banderak, posterrak eta kartetan aritzeko mahai-tapizak.

Gustura aritu dira egoiliarrak, jokalariekin hitz egiten. Batzuek ez zuten Real Unionen inguruko ideia handirik. Zale sutsuak ere baziren, ordea, haien artean. Jose Luis Larruquert Real Unioneko baz-

kidea da, eta txikitatik joan izan da Stadium Galera. "Garai batean harrobiko jokalariekin jokaten zuten, eta beste nortasun bat zuten taldeek", gogoratu du Larruquertek.

Aspaldiko Real Union gogoratzen du, baina egungo egoeraren berri ere badu. Penaz aitortu du larritasun ekonomikoak koska bat gorago egotea galarazten diola taldeari: "Presidentearen arteko eztabaidak utzi eta klubaren alde lan egiteko bat egin behar lukete. Espainiako Txapeldun izan zen talde hari gorazarre egiteko". Harro erakutsi du Larruquertek egungo jokalariek sinatutako posterra.



## Hitza, gatazkak gainditzeko

**“Hondarribian Bizikidetzaz Blagan” ekimena dinamizatu du Mainer Martiarena Bakeolako kideak**

Elkarri hitz egitea eta entzutea, norberaren bizipenak partekatzea. Hori izaten da gatazkak gainditzeko urratsak emateko modu eraginkorrenetako bat. Hala uste du, behintzat, Mainer Martiarena Katea auzoko irundarrak. Badaki zertaz ari den, Bakeolan, EDE Fundazioko Bizikidetzaz, Gatazka eta Giza Eskubideen zentroan lan egiten baitu. Bertako kide gisa, Hondarribian bizikidetzaren inguruan aurrera eramantzen duten dinamikan parte hartu du, koordinatzaile eta dinamizatzaile lanean.

Motibazio politikoko indarkeriaren eta giza eskubideen urraketen inguruan bizipenak partekatzeko espazio bat sortzeko asmoaren berri eman zion Hondarribiko Udalak Bakeolari, 2015ean. Hasteko, hirian gaiaren inguruan interesa izan zezakeen jendearen zerrenda osatu zutela azaldu du Mainer Martiarenak. Ezaugarri ezberdinetako jendea bilatu zutela zehaztu du, adin, sexu, lan arlo eta kokapen ideologikoei zegokienez. Herritar guzti horiek gutun bana jaso zuten, eta baiezkota erantzun zuten artean, azken lan taldea eratu zuten.

Jendearen erantzun baikorraren eragilean artean bi faktore azpimarratu ditu Martiarenak: Hondarribiko Udalaren babesa, eta alderdi politikoko guztien adostasuna. “Hiritar askorentzat, udalaren babesa edukit-

zea lasaigarria da. Familia politikoko guztiak tartean baldin badaude, are gehiago”, aitortu du Mainer Martiarenak. Bospasei saio egin zituzten, Hondarribiko Udaletxean bertan. Indarkeriaren ondorioz bizi izandakoa elkarri kontatu eta aztertu zuten, eta aurrera begira dituzten itxaropenen eta asmoen inguruan aritu ziren hizketan. “Oso aberasgarria izan zen. Taldeko jendearen parte hartzea handia izan zen”, onartu du Maria Jesús Garín taldeko kideak.

Bakoitzaren esperientziak kontatu zituzten, eta ondokoek bizi izandakoez jabetu ziren. Batez ere, elkarri entzuteko aukera ona izan zela azpimarratu du Mainer Martiarenak: “Askotan, ondoan bizi garen

arren, ez dugu aldamenekoaren bizipenen berri izaten”. Lan saioak diseinatzen eta dinamizatzen aritu zen Martiarena. Aipatu du ez zutela telebistan agertu diren gertakizunetaz hitz egin nahi izan. Eguneroko jardueretan, askotan itzalean geratzen diren horietan sakondu zuten, horren ordez: elkar ikusi ezina, bestea etsai gisa hartzea, bizkarra ematea, posizionatzera behartzea etab. “Gai batzuk minez gogoratzen zituzten, eta momentu gogorak izan ziren. Baina itxaropenez beterikoak ere bai”, argitu du Martiarenak.

Gaizki kudeatutako edozein gatazkatan egoerak errepikatu egiten direla nabarmendu du Bakeolako kideak. Horregatik, haien azterketa eta lanketa baliagarria izan daitekeela, beste eremu batzuetan aplikatu ahal izateko. Motibazio politikoko indarkeria gurera sekula bueltatuko ez balitz ere, gatazkak behin eta berriro sortuko dira. Horiei aurre egiteko, aurretik izandako jarduerak aztertzeko ezinbestekoa dela uste du Mainer Martiarenak: “Ez dugu hausnartzen momentu jakin batean zer egin genuen, bidezko jokabidea eduki genuen, edo masak egiten zuena jarraitu genuen, besterik gabe”. Bakeolako kideak argi dauka urteetan isilpean egon izan diren pentsamenduak azaleratzetik etor daitekeela normalizazioa.

### Deialdi zabala, hiritar guztientzat

Lan taldean parte hartu zuten pertsonen esperientzia interesgarria eta aberasgarria izanenez, ekimena zabaltzea erabaki zuten antolatzaileek. Hondarribian Bizikidetzaz Blagan jarduera sorta prestatu zuten. Lau saioko egitaraua izan zen, eta

hiri osoan zabaldu zuten deialdia, komunikabideen eta udalaren baliabideen bitartez. “Egin genuen sukaldeko lana azalatu nahi izan genuen, herritarren parte hartzea bultzatzeko”, adierazi du Koldo Ortega taldeko partaidea. Hondarribiko Alde Zaharreko Kultur Etxean egin zituzten bideo eta antzerki emanaldiak, eta ondorengo eztabaidak. Azken horiei eman die balio gehien, hain zuzen ere, Mainer Martiarenak: “Elkarrizketa horietan sortu ziren hausnarketak oso interesgarriak izan ziren”.

Hondarribiko hurrengo taldea eratzeko lanean ari dira momentu honetan. Baina eskualde mailako beste baten behararen inguruan ere hausnartu du Martiarenak. Onartu du aberasgarria izango litzatekeela,

oso era ezberdinean bizi izan baita euskal gatazka Hegoaldean eta Iparraldean. Kasu horretan, Behe Bidasoa eskualdeko hiru hizkuntzen presentziaren beharra nabarmendu du, dena den: “Oso garrantzitsua da parte hartzaile

bakoitza eroso sentiarazten duen hizkuntzan aritu ahal izatea”. Bestalde, agerikoa da halako espazioak beste gai batzuetara zabal daitezkeela. Martiarenak adibide gisa aipatu ditu Gipuzkoan zaldaparta sortu duen zabor biltzea, edo eskualdean aski ezaguna den Alardeen inguruko afera: “Gatazka baten ondorioen eredu handi bat da. Ariketa polita litzateke soilik elkarri entzutea”. Kateakoak argitu du Bakeolako kide moduan lan hori ez dagokiola berari. Bidasoarra den aldetik, ordea, gaiaren inguruko elkarrizketa espazio baten beharra aldarrikatu du.

“Askotan, ondoan bizi garen arren, ez dugu aldamenekoaren bizipenen berri izaten”

**Mainer Martiarena,  
Bakeolako kidea**

“Taldeko jendearen parte hartzea handia izan zen”

**Maria Jesús Garín, taldeko parte hartzailea**

# Hesi guztiak gainditu ditu Teresa Errandoneak

Atletismoarekin berriro adiskidetzeari lortu du Teresa Errandonea Super Amara BATEko atletak (Irun, 1994). Klubeko harribitxi handienak urte eta erdi eman du bere maila onenetik urrun, lesioen ondorioz. Bueltan da, ordea, eta indarrez ekin dio aurtengo sasoiari. Inoizko denboraldi hasiera hoberena egin du, 8.55eko markarekin, 60m hesietako proban. Bigarren lehiaketan, 8.42koa lortu du, eta 8.33koa da bere denbora onena.



Ondo entrenatzen ari zen, baina ez zuen ilusio handirik egin nahi. Iaz ere, denboraldiurrean sentsazio onak izan zituen arren, pista estalian lehiatu gabe gelditu baitzen, oinazpiko lesioa bueltatu zitzaionean. 2015eko udaberrian hasi zitzaizkion minak. Denboraldi hartan ezin izan zuen hesietan goi mailan aritu, baina alternatiba topatu zuen, luzera jauzian. 6,27m-ko jauzia egin zuen, eta promesa mailako Europako Txapelketan parte hartu ahal izan zuen, Tallinen (Estonia). Kontsolamendu gisa balio izan zion.

Edonola ere, joan den urtean ilusioz hasi zen entrenatzen, oinazpiko arazoa gainditua zuela pentsatuta, hesietan maila onean aritu ahal izango zuelakoan. Lehiatzeari ekitera zihorean, ordea, minez hasi zen berriro. "Bigarren kolpea gogorragoa izan zen", onartu du Teresa Errandoneak. Sufirimenduak bi adar nagusi izan zituen atletarentzat. Alde batetik, lehiaketan presioa sentitzen zuen: "Pistara bueltatzeko presia nuen. Gainera, lehiakideak ondo ari zirela ikusten nuen, eta amorrua ematen zidan".

Bestetik, medikuek ez zuten bere lesioaren iturburua topatzen. "Infiltratu egiten ninduten, eta mina baretu egiten zitzaidan. Baina azkenean bueltatu egiten zen beti", azaldu du Errandoneak.

Realeko fisioterapeutekin hasi zenean lortu zuen mina gainditzea. Hesiekin entrenatzen hasi ahal izan zuen, baina lehen urratsak ez ziren atseginak izan. Teresa Errandoneak adierazi du "baldar" ikusi zuela bere burua, trakets hesiak igarotzerakoan: "Horren proba teknikoa izanik, denbora batez entrenatu gabe egon ondoren, ikaragarri nabaritzen da". Fisioterapeutek azaldu zioten pasa beharreko etapa zela. Denborarekin, lortuko zuela lehengo bizitasuna. Horregatik, ez zuen bel-

durrik izan 2016ko udako sasoiaren 100m hesietan lehiatzeko. Promesa mailan Espainiako txapel-dun izan zen, eta hirugarren senior mailan. "Sentsazioak ez ziren onak izan, eta denborak ere ez",

aitortu du, aitzitik, Errandoneak. Gogoz hartu zuen denboraldiaren amaiera. Atse-denaren ondoren, ilusioa indarberrituta

ekin zion entrenatzeari.

## Epe luzeko helbururik gabe

Aurten pista estaliko sasoiari eman dion hasiera, itxaropenak berpizteko modukoa da. Hala ere, Teresa Errandoneak baieztatu du atletismoaz "gozatzea" duela helburu, azken aldian ez diola poztasun handirik eman: "Denbora honetan ikasi dudana da egunetik egunera bizi beharra dagoela. Edozein momentutan okertu daiteke dena, eta helburu guztiak zapuztu". Dena ondo bidean, bere markak hobetzeko gai dela uste du Errandoneak. Lortzen baldin badu, litekeena da senior mailako Espainiako Txapelketetako podiumetan egotea. "Nire kategoria da jada, bukatu zait gazte mailen kontua", gogoratu du atletak, umoretsu. Otsailaren 18-19an izango da pista estaliko Espainiako Txapelketa absolutua, Salamancan.

Aire zabaleko pista, udako sasoi, oso urrun ikusten du oraindik. 100m hesietako proban aritu beharko du orduan, eta aipatu du, momentu honetan, ez duela bere burua distantzia horretan

ikusten: "Entrenamendu laburragoak egi-ten ari naiz orain. Txorakeria dirudi, 40m baino ez direlako, baina diferentzia handia da". Hotzari, euriari eta haizeari aurre egin behar izaten die garai honetan, gainerako entrenamendu kideek bezala. "Negua gogorra izaten da Plaiaundin", onartu du Errandoneak.

Aire zabaleko sasoiari indarrez iristeko beste motibazio bat ere izango du aurten, nolahi ere. Super Amara BATEko emakumeen taldea Ohorezko Mailan ariko da, estatuko talde onenekin lehiatzen. Errandoneak ondo ezagutzen du aurkariaren maila, baina iragarpen baikorra egin du, dena den: "Lehen bi jardunaldietan sufritzea egokitu-tuko zaigu, proba bakoitzeko bi atleta behar direlako".

Hirugarrenean, erabakigarrian, atleta bakarra ariko da proba bakoitzean. "Orduan gure mailak gora egingo du, eta kategoriari eusteko gai izan gaitzkeela uste dut". Erreferentzia nagusia berreskuratu du, behintzat, Super Amara BATEk.

"Horren proba teknikoa izanik, denbora batez entrenatu gabe egon ondoren, ikaragarri nabaritzen da"

"Denbora honetan ikasi dudana da egunetik egunera bizi beharra dagoela"



**Espazio ezberdina**  
Artisauentzako eta artistentzako espazioa

**Oinetakoak eta osagarriak**  
prezio berdingabeetan



Mendelu 53, Hondarribia



**GURUTZ AGINAGALDE,  
eskubaloï atezaina:**

**“Nire adinean, motibazioa eta ilusioa oso garrantzitsuak dira aurrera egiteko”**

Ezusteko dei batek neguko oporrak eten zizkion Gurutz Aginagalde Naturhouse La Rioja eskubaloï taldeko atezainari. Pozarren dago, baina. Sekula ahaztuko ez duen esperientzia bizi ahal izan baitu hari esker. 39 urterekin, Espainiako eskubaloï selekzioaren deialdian sartu da atezaina, aurrenekoz, Domingo Bárcenas Mermorialerako. Irunen jokatu dute gainera nazioarteko txapelketa, bigarren aldiz segidan. Urtarrilaren 6an egin du debuta, Espainia-Polonia norgehiagokako bigarren zatian. Artaleku kiroldegiko atean izan da, eskubaloïan lehen urratsak eman zituen tokian. Julen Aginagalde anaia izan du ondoan kantxan, talde berean, eta senideak eta lagunak harmailan. “Ezaugarri guzti horiek ametsa boroildu egin dute”, onartu du Aginagaldek.

**Espero al zenuen, ia 40 urterekin, Espainiako selekzioaren deia?**

Sorpresaz hartu nuen, adinagatik, eta 22 urteko ibilbidearen ondoren iritsi zaidalako. Nire egoeran, deialdietatik kanpo egotea da ohikoena. Dena den, kirolari guztiok daukagun ametsa da, eta oso pozgarria izan da.

**Anaia gaztea zenuen taldean. Errazagoa izan al da integratzea?**

Oso eroso izan da, egia esan. Anaia edukitzeak laguntzen du, jakina. Hala ere, denekin jokaturakoa nintzen, batzuekin taldekide, besteen aurkari. Mundu txikia da eskubaloïarena, eta denok ezagutzen

dugu elkar. Harreman ona dugu, beraz, taldeko giroa polita da. Jordi Ribera hautatzailea ere ezagutzen nuen, entrenatzaile izan bainuen Bidasoan.

**Ez zara Munduko Txapelketako taldean izango. Edonola ere, nola ikusten dituzu taldekideak?**

Egia da egoera berezi batean etorri naitela. Irungo egonaldian izate hutsa oso garrantzitsua izan da niretzat, eta ahalik eta gehien gozatzeko ahalegindu naiz.

Taldea oso ondo ikusten dut. Joan den urtean Olinpiar Jokoetatik kanpo geratu ziren, eta azken erreferentzia hori dugu. Baina ziklo olinpiko horretan jokaturako

beste lau txapelketetan, finalerdietatik gora egon dira denetan, eta hiru domina lortu dituzte. Meritu hori aitortu behar zaie. Taldearen multzorik handiena berdina da, eta konfiantza edukitzeko arrazoiak daude.

**Errioxako ardoak bezala, hobera egin duzu adinarekin. Gustura zure egungo mailarekin?**

Arlo fisikoan ez dut inolako arazorik. Eta esperientzia, azkenean, oso garrantzitsua da atezainaren lanean. Bárcenasarako deialdiaren aurretik, Jordi Riberak aurreratu zidan Munduko Txapelketarako lau atezainen zerrendan egongo nintzela. Nire partida asko ikusi izan dituela, eta nigan konfiantza handia duela esan zidan.

39 urterekin Logroñon oraindik Txapelduken Liga jokatzeko nabil, eta Asobal Ligan, urte asko daramatzagu bigarren tokian, Bartzelonaren atzetik. Nire adinean maila horretan ibili ahal izatea oso pozgarria da.

**Artalekun eman zenituen lehenengo urratsak. Zergatik utzi zenuen Bidasoa, 2005ean?**

Denboraldi asko neramatzan, eta urterotero, beste atezain bat ekartzen zuten, atea indartzeko asmoz. Etxekoa nintzen, eta ez nuen klubaren eta garaiko entrenatzaileen konfiantza sentitzen. 26 urterekin, aurrera pauso bat ematea erabaki nuen, noraino iristeko gai nintzen ikusteko asmoz. Minutu gehiago eskainiko zizkidan talde bat bilatu nuen.

**2003an sortu zen BM Ciudad de Logroño. Nolatan hautatu zenuen horren talde gaztea?**

Zalantzak eragiten zituen, baina proiektu polita zirudien, itxura ona zuen. Gainera, etxetik gertu zegoen. Denborarekin, agerian gelditu da asmatu egin zutela. Klubak gora egin izan du beti. Krisi garai gogorretan ondo egin dituzte gauzak, eta hori ez da batera erraza. Nire bilakaera ere

ona izan da, oso pozik nago momentu hartan hartutako erabakiarekin.

**500 partida bete dituzu aurten Logroñon. Ikurra zara klubean.**

Urte asko daramatzat, jokalaria beterranena naiz, diferentzia handiarekin, gainera. Nire burua maitatua eta miretsia sentitzen dut. Nire adinean, motibazioa eta ilusioa edukitzea oso garrantzitsua da aurrera egiteko. Nik Logroñon aurkitzen ditut horiek.

**Noiz arte uste duzu izango zarela eskubaloïan jarraitzeko gai? Non?**

Askoz gehiago ezin izango dut luzatu. Momentuz, ea aurtengo denboraldia ondo bukatzen dudan. Ikusiko dugu hurrengoan zer gertatzen den. Baina tira, momentuz ondo nago, bai arlo fisikoan, baita psikologikoan ere. Motibazio txiki hauek, gainera, asko laguntzen dute ilusioa mantentzen. Gorputzak laguntzen duen bitartean, burua fresko baldin badaukat, jarraitzeko aukera izango dut. Non? Ez dakit. Gauzak egun batetik bestera alda daitezke. Ekainean ikusiko dugu non izango den.

**Nola ikusi duzu Bidasoaren bilakaera, azken urteotan?**

Bigarren mailako urteak ongi aprobetxatu ditu. Alde batetik arazo ekonomikoak konpontzeko, eta bestetik, arlo sozialean aurrera pauso bat emateko. Gaur egun Artalekura gerturatzen den jende kopurua ikustea besterik ez dago. Jende gazte asko egoten da gainera, eta hori klubaren osasunaren seinale da.

Kirol arloan, nik uste bide ona daramatela. Berdintasun handia dago Asobal Ligan, baina partida onak egin dituzte, eta mailari eusteko aukera asko dituztela esango nuke.



## LARRUN (904m)

Denbora: 4:30 (geldialdiak barne).

Distantzia: 12 km.

Desnibela: 750 m.

Zailtasuna: ertaina.

Nabarmentzeko moduko altuera duen Pirinioetako lehen tontorra da, mendebaldetik hasita. Euskal Herrian bisitari gehien jasotzen duen tontorren artean dago, Le Petit Train delakoari esker, batez ere. Saratik tontorrera igotzeko aukera ematen duen trena da. Lapurdiko lurraldearen bista ikusgarriak eskaintzen dituela ere azpimarratzekoa da.

Ibilbidea Lizuniagako Bentan hasten da (220m), Beratik 10 minutura, autoz. Hartziko bide batean aurrera egingo dugu, eroso. Baserri gune batetara iritsiten garenean, egurrezko kartelaren norabidea jarraituko dugu. Maldan gora hasiko gara, ehiza postuen artean, Kondediagako leporaino (315m, 30 min.). Benta Beltza eraikina topatuko dugu, aurrez-aurre. Joanekoan haren ezker aldeko bidea hartuko dugu, eta eskuin aldekotik bueltatuko gara, ibilbide biribila osatuz.

Lurrezko bidetik egingo dugu aurrera, zuhaitzez inguratuta. Ereku zabal batera iritsiko gara ordu beteren buruan (1:30). Bertan, inguruko mendien ikuspegi ederra

izango dugu. Iratzen arteko bide bat jarraituko dugu, goialdean ikusiko ditugun arrokak erreferentzia hartuta. Eguneko tarte gogorrena izango da. Azken ahalegina izango da, tontorrera heldu aurretik (2:10). Antena famatura eta jatetxera iristeko, malda txiki bat igo beharko dugu oraindik (2:30).

Bueltarako, marka urdinak jarraituko ditugu, iratzen artean. Ordu bete eskasean Benta Beltzan egongo gara berriro. Solte dauden harriekin kontuz ibili beharra dago. Beste ordu erdiren buruan Lizuniagako Bentara iritsiko gara.

## GORKA MARTINEZ



[unpaisenmimochila.blogspot.com](http://unpaisenmimochila.blogspot.com)



San Vicente de Paul HH



EUSKARRAZ JOLASTAN

San Vicente de Paul LH3

Euskarazko mikelaren

Buziren belak, Afrikako saguti belak, lau kagutu Haizua,  
 Paula, Yuki eta Senas ezkeretik, Markel berekin,  
 Senas, herria, kotxiduna, Haize politikari eta Paula abokatu.  
 Espirituak jaso ziren, animalia asko bat trastero.

Hala ere belak, eurak egun zuri eta kaxak hiru egun  
 ziren eta hiru genda ziren eurak galduta ziren. Eurak galduta,  
 ilunak ziren eta hiru le egitea ez zuten.

Hurrengo egunak, ezkeretik, berriz belak hiru ziren, eta ezkeretik  
 belak hiru kaxak hiru genda ziren. Oriban, genda ziren eta  
 Senas ezkeretik bat zela kaxak hiru ziren. Ezkeretik, animalia  
 asko eta mikelaren ikusi ziren. Ahoz hiru hiru  
 animalia ziren. Animalia berak ez ziren berak  
 jaso berak ziren. Ezkeretik ezkeretik. Bidean, ezkeretik genda  
 ziren eta politikari politikari ezkeretik jaso ziren.

Ahateak, ahateak ziren. Senas, hiru le egitea genda  
 ziren. Bidean, Markel berekin hiru egun ziren eta hiru ziren.  
 Paula eta Haize ezkeretik ziren eta ezkeretik kaxak ziren.

Hala ere belak eta ezkeretik, ezkeretik kaxak eta ezkeretik  
 ezkeretik Senas ziren.

6.B Haizea, Paula,  
 Markel eta Senas

# EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

Irungo Kateako S.R.A. andereari jaso  
 (1959-X-20). Amari ikasi zion. (El Bidasoa,  
 1959-XI-21)

## Okelarreko atsua

Okelarreko atsua  
 Mari Antoni  
 mantala zarra  
 autsiyarekiñ  
 begira planta oni.

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga  
 Euskaraz, Irunen barrena.



# bideosare

Bideoak zure erara!



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com



# Idea nola komunikatu

Arte kontzeptualaren arloan lanean dabil Oier Gil



Artisten mundua irauli zuen Marcel Duchampek 1917an, komuneko ontzia New York-eko erakusketa batean jarri zuenean. “Harrezkero, edozer izan daiteke arte. Arte instituzioek erabakitzen dute zer den baleko”, argitu du Oier Gilek. 26 urteko artista irundarrak ere badu harreman artistikoa komuneko ontziarekin, izan ere, 2012az geroztik, haren gainean eserita selfie-ak ateratzen dabil, *Kakitten project* lanaren baitan. 1.200 argazki baino gehiago egin ditu jada, eta Instagram sare sozialean elkarbanatzen ditu gaur egun, jarraitzaileekin elkarreragina eduki ahal izateko.

Denetarik entzun behar izan du Gilek. Zorionak eta animoak iritsi zaizkio. Baina nazkante edo zerri ere deitu izan diote. “Batek zakila agerian uzteko eskatu zidan”, aitortu du: “Baina nire helburua ez da gorputza erakustea”. Artista kontzeptuala da Oier Gil, eta ideiak zabaltzeko bide eraginkorrenak bilatzen ahalegintzen da. *Kakitten project* lanarekin, gizartean estigmatizatuta dagoen espazioaren aldarrikapena egin nahi izan du: “Nik komuna askatasun gune kontsideratzen dut. Deskonektatzera joaten naiz. Eseri egiten naiz, mugikorra ateratzen dut, garai batean Dragoi Bolako komikiak irakurtzen nituen... Horri balioa eman nahi nion”.

Lagunei bidali zien lehen argazkia, erdi txantxetan. Aurrerantzean, enkoadraketa berbera mantendu du, baina une eta leku ezberdinetan atera ditu argazkiak. Hasi-eran ez zituen sare sozialetan elkarbanatu. 2015ean, Getxoarte azokan proiektuko argazkiak erakutsi ahal izan zituen, 8x2m-ko stand batean. Inflexio puntua izan zela

onartu du artistak, lanak jendearengan zuen eragina ikusi baitzuen: “Ona edo txarra, baina zerbait eragiten zuen beti, jendea interpelatua sentitzen zen”. Horregatik erabaki zuen Instagram sare sozialean proiektua garatzen jarraitzea. Orain iruzkinak egiten dizkiote, eta jendea ere “kakitten” argazkiak ateratzen hasi dela azaldu du.

Sare sozialek mezuak zabaltzeko duten bostera “ukaezina” dela uste du Oier Gilek. Arabiar Udaberria edo Espainiako 15M mugimendua aipatu ditu adibide gisa. Sare sozialak komunikabide handiak baino demokratikoagoak direla onartu badu ere, zentsura gero eta handiagoa dela salatu du artistak: “Badirudi internet askea dela, baina bost makro enpresaren esku dago. Edukiak algoritmoen bidez kontrola ditzakete. Hori arriskutsua iruditzen zait”.

“Pentsamendu kritikoa sustatzea da nire helburua”

## Ez du zentsurarik jasan

Oier Gilek ez du sekula zentsura edo presio arazorik izan. Ez *Kakitten project*-ekin, ez landu dituen gainerakoekin ere. Neurri batean, pena hori duela argudiatu du artistak: “Nire lanen moduko zerbait egiten baldin baduzu, eta ez baduzu inor moletatu, ez duzu ezer egin. Onerako edo txarrerako, baina proiektuez hitz egin dezaten nahi nuke”. Kontuan hartu behar da arte lan kritikoak egiten dituela Gilek, kasu askotan, eduki politikoa dutenak: “Bizi dugun testuinguruaren baitan sortutako ideologiaren ondorioa naiz, eta injustiziak salatzen dihardut”.

“Ezarritako” mugaren gaia behin baino gehiagotan landu duela azaldu du, adibidez. *Tachado de los Pirineos* proiektuan, Faisaien uharteko monumentua estali, eta bertan 1659an sinatu zen hitzarmena, Espainiaren eta Frantziaren arteko muga zehaztu zuena, argitaratu eta zirrimarratu zuen. “Ekintza sotilak dira, baina balio sinboliko handia dutenak”, adierazi du Gilek: “Garrantzitsuena ez da zer egin dudana, baizik eta zein hausnarketa behar izan dudana, proiektu hori aurrera eramateko”.

Ekintza xume batek, jendea pentsatzera edo mugitzera bultzatu dezakeela uste du. Asko dira lanak beraientzat egiten dituztela baieztatzen duten artistak. Gilentzat, berriz, erabat soziala den erreminta da artea: “Pentsamendu kritikoa sustatzea da nire helburua”.

## Artearen munduaren kontraesanak

Bideoa erabili izan du Oier Gilek, gehiengotik, transmititu nahi dituen ideiak zabaltzeko. Ikus-entzunezkoena da eroso sentiarazten duen medioa. Horrek badu azalpena: “Nik 18 urte nituenean, bideoa

egin nahi nuen. Sorkuntzara bideratzeko, Ikus-Entzunezko Komunikazioa beharrean, Arte Ederrak ikasteko gomendatu zidaten”. Orduan, Gilek ez zuen bideo esperimentalaren eta kritikoaren berri. Karreran zehar ezagutu zuen, eta mundu horretan murgildu zen, buru-belarri. “Nik pintura irakaskai asko suspenditzen nituen”, aitortu du, barrez.

Topatu du, ordea, bere bidea. 2016 urtea positiboa izan da Oier Gilentzat, inoiz baino erakusketa gehiago egin ahal izan baitu. 16 izan dira guztira, horietako batzuk atzerrian: Alemanian, Argentinan edo AEBetan, esate baterako. Nolanahi ere, erakusketen munduarekin maitasun-gorrotto harremana duela onartu du artistak: “Artearena, influentzien mundu bat da. Erakusketa bat egin duzu, bertan komisario bat ezagutu duzu, haren bidez ikastaro bat egin duzu, eta hari esker beste erakusketa batean parte hartu duzu. Sare horien funtzionamendua dela eta, inbidiak sortzen dira askotan, artisten artean”.

1.500 euroko balioa eman diote bere azken ikus-entzunezko lanei, baina oraingoz ez du bakarra ere saldu. “Jendeak pentsatzen du arteaz bizitzeko obrak saldu behar direla. Ni ez nago ados”, adierazi du Gilek: “Zure jakinduria zabaltzeko ikastaroak ematea, sinposium-etan, kongresuetan eta mahai-inguruetan parte hartzea, hori ere bada arteaz bizitzea”. Artistaren lan ildoaren eta ideologiaren arabera, obrak saltzea kontraesana izan daitekeela ere azpimarratu du artistak: “Askotan, zure lanekin kritikatu duzun jendea da gero lana erosiko dizuna”. Garrantzitsuena, kontraesanen jabe izatea dela baieztatu du Oier Gilek. Momentuz, Irungo Bitamine arte faktorian dabil, soldataren truke, proiektu pertsonalak aurrera eramaten dituen bitartean.



### ESKIATZERA GOAZ, BA AL ZATOA? SNOWBOARD ERE EGINGO DUGU !!!

**Noiz?** Otsailak 11, larunbata.

**Lekua:** Arette.

**Irteera:** 6:00 (Biseran, bus geltokian).

**Iristea:** 20:00 (Biseran, bus geltokian)

**Adina:** 12 - 22 urte.

**Prezioa:** 21,75 euro (autobusa + materiala alokatzea + 2 orduko klasea + forfait + asegua).

**Izen-emateak:** IGazten edo Martindozenea Gaztelekuan

**Epea:** Otsaila.

### GAZTEARTEAN EXPO: " POWER OF THE PLAY "

Erakusketan, Marifx Arias artistak emakumeek musikan izan duten rola islatzen duten lanak aurkeztuko ditu.



Gainera, Marifxek hainbat lan egingo ditu zuzenean asteartean, asteazkenean eta ostegunean, Gaztelekuko 3. Aretoran; horrela, Gaztelekua ate irekietako tailerra bihurtuko da!!!

Zatuz artista ezagutzera, eta komenta itzazu teknikak edo bitxikeriak, truka itzazu esperientziak... !!!

**Erakusketa:** "Power of the Play".

**Artista:** Marifx Arias.

**Egunak:** urtarrilak 14, otsailak

10.  
**Ordutegia:** 17:00 - 21:00 (asteartetik larunbatera)

**Lekua:** Martindozenea Gaztelekua (Elizatzko hiribidea 18, Irungo La Salleren ondoan)



**BESARKADAK. ALTZARIAK ZAHAR BERRITZEKO TAILERRA**  
Altzariak zaharberitzeko... ERRERABILI!!!

Horretarako trebeziak partekatuz. Plazak mugatuak dira.

**Eguna:** urtarrilak 24.

**Ordua:** 17:30.

**Lekua:** Lakaxita (Anaka, 20 - Irun).

**Informazioa eta izen-emateak:**  
besarkadak@emaus.com  
Telefonoa: 943 367 534.



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian  
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40  
- Posta elektronikoz: [igazte@irun.org](mailto:igazte@irun.org)  
- Webean: [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte)  
- WhatsApp bidez: 607 771 173

### ADI EGON!!! ORDUTEGIAREN ALDAKETA IGAZTEN

**Astelehetik ostiralera:**  
11:00 - 13:30.

**Astelehen eta asteazkenetan:** 17:00 - 19:30.

Edozein kontsulta, zailantza, iruzkin, iradokizun-edo baldin baduzu, whatsapp bidez jar zaitezke harremanetan:

607 771 173 whatsappen zenbakian, [igazte@irun.org](mailto:igazte@irun.org) posta elektronikoa edo gure webgunean ([www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte))



## LAN ESKAINTZA: GAZTEEN SUSTAPENERAKO TEKNIKARI BAT IRUNEN



Gazteen sustapenerako teknikari bat Irunen.

### Eskakizunak:

- Unibertsitate mailako gradua edo titulu baliokidea Gizarte eta Lege Zientzien adarrean edo - Animazio Soziokultural eta Turistikoko goi mailako teknikari titulua edo baliokidea.

- Euskara (C1 maila).

- Esperientzia gazteria zerbitzuetan.

- Ingeles eta frantses hizkuntzetan ezagutzak.

- Kontuan hartuko da informazio eta komunikazio teknologietan, community manager lanetan eta aisialdiko gaietan prestakuntza izatea.

- Gazteen sustapenarekin eta gazteek gizartearen aktiboki parte hartzea bultzatzearekin lotutako jardura soziokulturalen eskaintza antolatzea.

- Jardura eta zerbitzu eskaintzari euskarri tekniko ematea Gazteentzako Informazio Bulegoaren bidez.

**Izen emateak:**  
[www.lanbide.net](http://www.lanbide.net)



## Ketty's Academy

- Klaseak taldeka eta pertsonalizatuak
- Esperientzia zabala ingelesaren irakaskuntzan
- Enpresentzako klaseak: ingelesa, alemana, italiara, frantsesa, espainiera
- Maila guztiak
- Tituluak eskuratzeko klaseak

Ingelesa 4 urtetik aurrea !!

Andrearriaga kalea,  
10, IRUN  
652 777 360

[kellysacademy@gmail.com](mailto:kellysacademy@gmail.com)

EGONALDIAK EEUUetako famillirekin





**Martxoaren 5era arte**

**Zer?** "PORCELANAS BIDASOA: INDUSTRIA, ARTE & MEMORIA" erakustaldia. Han Karlos Olivéren argazkiak ikusteko aukera izango duzu. Halaber, Salvador Dalí eta Pablo Picassoren portze-lanazko piezak ere ikusi ahal izango dira, besteak beste.

**Non?** Oiaso Erromatar Museoa Eskoleta, 1

**Ordua?** 1- Astelehenetan itxita.  
- Astearte, asteazken eta ostegunetan: 10:00etatik 14:00etara  
- Ostiral eta larunbatetan: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.  
- Igandeetan: 10:00etatik 14:00etara

**Sarrera:** Doan.

**Urtarrilak 18**  
**Zer?** AFAGI-ko (Gipuzkoako Alzheimerdunen eta Bestelako Dementziadunen Senitartekoen eta Lagunen Elkarte.) hitzaldia.

**Non?** Argoiak Kultur Elkar-

tean. Uztapide bertsolaria, 6.

**Ordua?** 17:00etan.

**Prezioa:** Doan.



**Urtarrilak 20**

**Zer?** Cineclub programaren barruan, zinema frantsesaren txanda izango da.

**Non?** CBA Udal liburutegian.

**Ordua?** 19:00etan.



**Prezioa:** doan.

**Urtarrilak 21**

**Zer?** Tarima beltza amateur antzerkia egingo da.

Zuzendaria: Jon Barbarin  
Aktoreak: Marta Diego, Eider Leoz, Juan Manuel Herrero, Mertxe Herrera, Olivi Galparsoro, Nahikari González y Pili Maldonado  
Iraupena: 60'.

**Non?** Amaia KZn.



**PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS, "TIPI-TAPA KORRIKA" (EUSKARAZ)**



Pirritx, Porrotx eta Marimototsen "Tipi-tapa korrika" antzerkia eskainiko dute.

Korrikako kilometro bakoitzean lekukoa pasatzen dugu euskaldunok eskurik esku, maitasunez. Lekukoa airean

dabil, lurrik ukitu gabe, barruan mezu sekretu bat gordeta, sudurgorriok zuen herriko jaialdian zabalduko duguna. Eman, hartu, jaso, pasa... aurrera... Badaramagu euskara etorkizunerara!

**Noiz?** Urtarrilak 22.

**Ordua?** 1. 16:00etan.  
2. 18:00etan.

**Non?** Amaia KZn.

**Prezioa?** 4,20 euro.

**Salmenta?**

-Interneten bidez: ticket.kutxabank.es web gunean.  
-Irungo Turismo bulegoan, Luis Mariano plazan.  
-Leihatilan ikuskizunaren egun berean.

**teleinmobiliaria**

Nafarroa ibilbidea, 7 - IRUN ☎ +34 669 408 705  
info@ekarinmobiliaria.com www.ekarinmobiliaria.com

### PRIMERAKO AUKERAK

 <b>Pisua salgai Irún Kolon</b> Azalera 131 m <sup>2</sup> , 3 gela, hainagela 1, 2 koinun, egongela, sukaldea, 3 baloi, hegovi doruntz, egoletan. Ref: 04472      195.000 €	 <b>Pisua salgai Hendais</b> Azalera 85 m <sup>2</sup> , 2 gela libelatu, behugela, koinuna, egongela, sukaldea, berriak, 3 baloiak, berogailu elektriko, hainagelak, egurketa eta hata botilak. Aparatuak barne. Ref: 03511      165.000 €	 <b>Pisua salgai Irún Aduas-Portu</b> Azalera 85 m <sup>2</sup> , 3 gela, 2 hainagela, egongela, sukaldea, berriak, hainagela, berogailu eta hata botilak. (Batuak sartuta) Ref: 04457      179.000 €
 <b>Pisua salgai Irún Larrehaundi</b> Azalera 72 m <sup>2</sup> , 2 gela, hainagela 1, egongela, sukaldea, baloiak, berogailuak, berogailuak. Irarritza eta pisu erretortak. Ref: 04464      125.000 €	 <b>Pisua salgai Irún Belaskoenean</b> Azalera 70 m <sup>2</sup> , 3 gela, behugela, egongela, sukaldea, berogailuak, berogailuak, hainagela eta oso egoletan. Ref: 04493      145.000 €	 <b>Pisua salgai Irún Kolon</b> Azalera 70 m <sup>2</sup> , 2 gela, 2 hainagela, egongela, sukaldea, berogailuak, hainagela, hainagela eta 40 m <sup>2</sup> ko terraza. Ref: 03992      230.000 €
 <b>Pisua salgai Irún San Miguel</b> Azalera 101 m <sup>2</sup> , 3 gela, behugela, koinuna, egongela, sukaldea, berogailuak, berogailuak, hainagela, berogailuak, berogailuak eta hata botilak. Ref: 04481      235.000 €	 <b>Pisua salgai Irún Aduas Zaharra</b> Azalera 60 m <sup>2</sup> , gela 1, bain. gela 1, egongela, sukaldea, berogailuak. Berogailu eta pisu erretortak. 2. pisu hainagela, 8 gabe. Ref: 04384      90.000 €	 <b>Jatebrea salgai Irún Olaberria Labeko Etxea</b> Azalera 770 m <sup>2</sup> , apartekoak, terraza. Jatebrea apartea, bi obabitza eta... sakonak 70 m <sup>2</sup> koak. Ref: 04250      Kontsultatu

**"ALQUILER PREMIUM" ALOKATU PISUAK ETA LOKALAK GUREKIN**



JU FAN GUNG FU-ko ikastaroak Olaketan gimnasioan

Bruce Leek sortutako diziplina



655 858 865



wcd junfangungfu



farambel@gmail.com

